

Azpeitian, 2013ko urtarrilak 18an

Lankide agurgarria,

Gure udalerriko iraunkortasunaren aldeko apustua sendotzeko asmoarekin, prozesu berri bat hastear gaude.

Azpeitiko egungo **behar eta ahulezi nagusienei aurre egiteko ekintzak jasoko dituen Plan bat egiteko asmoa dugu**. Plan honek, arlo soziala eta ekonomikoan jarriko du arreta baina ingurumenari lotutako gai nagusiak ere landuko ditugu, 2010an onartu genuen planetik abiatuta.

Beraz, oraingo honetan, eta udalerriko egoera kontuan edukita, **iraunkortasuna modu integral batean jorratuko duen Ekintza Plan berri bat egiteko momentua iritsi delakoan gaude**.

Plan honek **izaera estrategikoa** izango du. Horretarako, prozesuan zehar funtsezkoak diren 3 elementu kontutan izan beharko ditugu:

- o **definizio teknikoa:** honetarako kanpoko lantalde baten laguntza izango dugu,
- o **herriaren parte hartzea:** udalerriko eragile sozial eta ekonomiko nagusienek osatuko duten organo bat eratuko dugu.
- o **udal eta tokiko erakunde publikoen eragileen parte hartzea:** garapen iraunkorreko arlo desberdinetan inplikaturik zaudeten **eragileek parte hartuko duzue**.

Hasteko, **Diagnostiko** bat egingo dugu eta bertan identifikatuko diren lehentasunezko eremuetan oinarrituta, 2020 urtera begira **Udal Estrategia** formulatuko dugu. Azkenik, hortik abiatuta, 2013-2020 **Ekintza Plan bat** definituko dugu.

Hemendik aurrera eta prozesu osoan zehar **zuen parte hartzea oso garrantzitsua izango da**. Horregatik, prozesuaren nondik norakoak azaltzeko eta guztiok batera lehenengo pausuak ematen hasteko helburuarekin, datorren **urtarrilaren 24an**, goizeko **9'30tan**, ospatuko dugun bilerara gonbidatzen zaituztet. Bilerak gutxi gora behera, ordu t'erdi bat iraunduko du eta bertan zure parte-hartzea guztiz beharrezkoa da.

Aldez aurretik zure parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea